

2003. urteko Euskadi Literatura Sarien banaketa

Pello Lizarralde, Antonio Altarriba, Fernando Morillo eta Koro Navarro, irabazle

Joan den azaroaren 18an Euskadi Literatura sarien banaketa egin zen Gasteizko Lehendakartzaren egoitzan. Ohi denez, lau modalitatetan banatu ziren sariak, hau da, euskarazko literatura, gaztelaniazko literatura, haur eta gazte literatura, eta literatura itzulpen onena, eta, hurrenez hurren, Pello Lizarralde, Antonio Altarriba, Fernando Morillo eta Koro Navarro dira aurtengo irabazleak. Laurek ere Juan Jose Ibarretxe lehendakariaren eta Miren Azkarate Kultura sailburuaren eskutik jaso zituzten sariak.

Euskarazko saria: *Larrepetit*

Pello Lizarralde idazlearen *Larrepetit* liburuak jaso du euskarazko saria. Epaimahaiak idazlearen prosa minimalista goraiatu du, "esan daitekeenarekin eta isiltasunarekin" jolas egiten duela eta balio ia epifanikoa duten keinu, usain, kolore eta mugimendu xumeenetan kokatzen dela adieraziz, eta erantsiz: "indar liriko handiko deskribapenak baliatuz, kontamolde objektiboak muturrera eramanez, giroak, barne egoerak agintzen du Lizarralderen narratiban".



Aurtengo Euskadi Sarien irabazleak, Lehendakaria eta Kultura sailburuarekin.

Haur eta Gazte Literatura saria: *Izar-malkoak*

Fernando Morilloren *Izar-malkoak* narrazioak irabazi du haur eta gazte literaturaren saria. Kasu honetan, egileak ohiko gai bati berariazko ekarpenak egin dizkio eleberrian: gazte hizkera freskoa eta landua, elkarriketa bizkorak eta iradokitzaileak, hitz joko eta esaera bizi eta umoretsuak. Ekarpenero esker, idazleak dotore jakin du giro urbanoa asmatzen eta eraikitzen.

Modalitate honetan, bestalde, aipamen berezia jaso du Mariasun Landaren *Krokodiloa ohe azpian* lanak, gaia lan-tzeko era ausart eta originalagatik.

Literatura itzulpen onena: *Zortzi kontakizun*

Koro Navarro itzultzailearentzat izan da literatura itzulpen onenaren saria. Navarrok, Isaac Bashevis Singer-en *Zortzi kontakizun* liburuak itzuli zuen iaz, "yiddishezko idazlearen kontakizun ederrak jatorrizkoarekiko leialtasunez, zehatz eta gozo euskaratu, urte askotako ofizioak eman dion eskarmentu aberatsaz", epaimahaiak adierazi bezala.

Sail honetan bertan, epaimahaiak aipamen berezia egin dio Bego Montoriok euskaraturiko *Napumoceno da Silva Araujo jaunaren testamentua* liburuari, trebetasun handiz itzuli baitu euskarara Germano Almeida egilearen prosa jori eta oparoa.



Pello Lizarralde, Euskarazko Euskadi Sariaren irabazlea.

Gaztelaniazko saria: *La memoria de la nieve*

Antonio Altarribaren *La memoria de la nieve* liburuarentzat izan da aurtengo gaztelaniazko saria. Egileak Victor ume-zurtzaren ikusmiratik Sobiet Batasunaren bilakaera erakusten du, hamarkada gutxitan komunismo sutsuenetik kapitalismo bortitzenera pasa zena eta, finean, Victor bera bezala, sobietarrak ere umezurtz utzi zituen denborak.



Euskadi Literatura Sariak



PERTSONAJEA:
Koro Navarro

LABURRAK

- Ahozko inprobisazioa munduan

- "a bildua"

- Ereduzko Prosa Gaur programa sarean



- Ihesi. Euskal Herriko Gida

- Zaldibiako euskara aztergai



Euskararen Aholku Batzordearen agiria

laburrak

Ahozko inprobisazioa munduan



Inprobisazioari buruzko nazioarteko jardunaldiak egin ziren azaroaren 3tik 9ra, Donostian eta Bilbon, Bertsozale Elkar-teak antolaturik eta EHUKo Ikus-entzunezko eta Pu-

blizitate Sailaren lankidetzaz. Jardunaldietan AEBetako, Argentinako, Euskal Herriko, Georgiako, Kanariar Uharteetako, Kubako, Kurdistango, Marokoko, Balear Uharteetako, Mexikoko, Portugalgo, Jamaikako, Saharako, Sardiniako eta Uruguaiako inprobisatzaile eta adituak bildu ziren.

"a bildua"

Euskaltzaindiak urriaren 24ko bileran erabaki zuenez, "a bildua" da @ ikurraren euskarazko izena. Euskararen akademiak ez du, hala ere, "aroba" hitza erabat baztertu. Euskaltzaindiak adierazi duenez, "gaurko bizimoduan garrantzi handia dauka @ sinboloak, posta elektronikoa hainbeste erabiltzen denez" eta, ondorioz, izendapen bat hobestea erabaki zuen, "euskaldun hiztun eta idazle guztiei eredu jatorra eskaini nahirik".

Ereduzko Prosa Gaur programa sarean

Egungo euskal idazlerik onenek hitz, esaldi eta esapide bakoitza nola eta zer testuingurutan darabilten kontsultatzeko aukera eskaintzen du, Internet sarean, azaroaren 22az gero, Euskararen Donostia Patronatuaren eta Euskal Herriko Uni-



bertsitatearen ekimenez sorturiko *Ereduzko Prosa Gaur* programak. Ibon Sarasola idazle eta euskaltzainak zuzentzen du aipatu programa eta bi helbidetan da erabilgarri: www.ehu.es/euskariorria eta www.euskaraz.net.

pertsonajea

KORO NAVARRO

Literatura itzulpen onenaren Euskadi saria



Zalbi Ero

Koro Navarro (Donostia, 1955) Euskadi Literatura sariaren irabazle izan da aurten, itzulpen onenaren modalitatean. Irabazlea itzultzaile da ogibidez eta Rosetta bulegoan ari da idazketa, itzulpen eta zuzenketa lanetan.

Koro Navarrok Isaac Bashevis Singer-en *Zortzi kontakizun* lana eman du euskarara, idazlearen ipuin famatuenetako batzuk, *Kafkaren adiskidea* eta *Yentl*, biltzen dituen liburua baita. Singer Literatura Nobel Saria izan zen 1978an, Polonian jaioa izan arren, AEBetara emigratu zuen 1935ean eta hebreeraz idazten hasiagatik, yiddisha hautatu zuen, laster, adierazpidetzat. Oso obra handia idatzi zuen, kontakizunetaz eta eleberriz osatua. AEBetan hil zen 1991n.

Saria irabazteko aukera eman dion *Zortzi kontakizun* lana dela eta, Koro Navarrok adierazia du ez zuela Singerren lana aurretik ezagutzen baina haren liburua irakurri eta berak itzultzeko egoki iruditu zitzaioela. Harrezkero, liburuaren itzulpenak liburuak ez ezik autoreak bera ere ezagutzera eramanez, eta erraz ere egin zuen itzulpena. "Kuriosoa da, zeren mundu hori guztiz arrotza eta desberdina da, baina aldi berean, oso hurbila egiten da, eta itzulpena egitea oso erraza izan da", esan zuen Koro Navarrok saria jaso zuela jakinarazi ziotenean. Aldi berean, itzultzaileak Isaac Bashevis Singer idazlearekiko esker ona erakutsi zuen: "Deskubrimendua izan da literatura hori, mundu hori eta idazlea bera ezagutzea. Uste dut egile handi bat dela eta ezagutu izanarekin ere oso pozik nago".

Zortzi kontakizun hau baino lehen ere asko dira Koro Navarrok itzuli dituen liburu ederrak eta horien artean dira, adibidez, Patricia Highsmith-en *Poliki, poliki haizetan*, Truman Capote-ren *Gosaria Tiffany's-en*, Dashell Hammet-en *Gizon argala*, John Le Carré-ren *Hotzetatik etorri zen espia*, Edgar Allan Poe-ren *Botila batean aurkitutako eskuizkribua eta beste ipuin batzuk*, R. Kiplingen *Kim*, Mark Twainen *Hiru kontakizun*, John Steinbecken *Tortilla Flat*, Dylan Thomas-en *Artistakume baten erretratua*, E. A. Poeren *Kontakizunak...* Aurten, bertan, bestalde, Raymond Carverren *Zertaz ari garen maitasunaz ari garenean* liburua itzuli du.



Argia astekariaren web-gunearen zerbitzua: *Ihesi, Euskal Herriko Gida* Hainbat ibilaldi ematen ditu aukeran Euskal Herrian zehar

Argia astekariaren web-guneak (www.argia.com) "Bereziak" sailean eskaintzen dituen aukerarik bat da *Ihesi, Euskal Herriko Gida*, euskal lurretan zehar hamaika ibilaldi egiteko aukera ematen duen gida, euskaraz eta gaztelaniaz. Iosu Etxanizek eta Sareko Argiak elkarlanean egina da eta zazpi euskal herrietako bideak ageri dira bertan. Hona adibide bat, argigarri. Aizkorri-Urbaşa-Entziari dagokion ataletik hartua da, eta honela dio:

"Euskal Herriko erdigune geografikoaren inguruan hiru mendi lerro hauek altxatzen dira, aipatutako herrialdeen mugak markatuz. Aizkorri harkaiztsuaren pean aurkituko dugun San Adrian haizulo edo tunel natural ikusgarria mende askotan zehar Gipuzkoa eta Arabako, eta ondorioz, Frantzia eta Gaztela arteko lotura garrantzitsua izan da. Harreman horri esker, tunelaren alde bateko zein besteko herriak (Segura, Zaldondo...) indartu egin dira, eta hala, ondare aberasgarria utzi digute.

Bestalde, Nafarroan, goi-lautada itxura duen Urbasa mendilerro zelaitzuan, Euskal Herriko txokorik zoragarriena izan litekeen Urederra ibaia jaió eta goitik behera isurtzen dira bere urak, izenak berak dioen moduan ikuskizun eder horretan ur-jauzi eta uharka multzo izugarria osatuz. Halere, Urederra bertako miraririk handiena bada ere, sekulako ibilaldiak egiteko aproposak diren hainbat eta hainbat leku aurkituko dugu Urbasa osoan. Azkenik, Entzian, Urbasak Araban duen luzapenean, paseatzeko zelai eder gehiago ditugu, Legairekoak adibidez; eta amaitzeko, Agurain aldean, historiaurreko euskal monumenturik ederrenetako bi behatzeko aukera izango dugu".

Gida honek, gainera, Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako eta Bizkaiko diputazioen turismo web-guneekin bat egiteko bidea ere egiten du.



Zaldibiako euskarari buruzko argitalpena



"Herria hizkuntzak egiten du. Hizkuntza, berriz, hiztunen etorriak jantzen du. Hiztun zaharrenean jario aberats hori da liburu honetan bildu nahi izan duguna". Horrela diote Karmele Etxabe eta Larraitz Garmendia hizkuntzalariek *Zaldibiako Euskara. Bertako bizimodua, ohiturak eta pasadizoak* liburuaren atarikoan.

Zaldibiako euskararen azterketa dialektologiko-metodologikoa egitea zuten helburu egileek baina jasotako grabazioek beraien lanari alderdi etnografikoa eransteko aukera eman diete. Izan ere, hainbat ordu grabatu dituzte 75 urtetik gorako 24 pertsonarekin. Bertan, erromeria garaia, gerra kontuak, gosetea eta beste hamaika gai landu dituzte bi filologoek. Gainera, herriko azentua jasotzeko asmoz, CDan bildu dituzte grabaturiko zenbait pasarte.

"Ikerketa lan luzeago baten hasiera besterik ez" omen dute, hala ere. Egileek esana.

Euskara plazara

Euskararen Aholku Batzordearen agiria abenduaren 3a, Euskararen Nazioarteko Eguna ospatuz

Lurbira honetako izaki orok baditu bere adierazpideak. Baina hitza, hizkuntza, gizakiak baino ez. Eta gizakiok hizkuntzaren bidez iristen gara heldutasunera. Gizakiok sortzen dugu hizkuntza, eta hizkuntzak egiten gaitu gizon eta emakume.

Gure aurreko euskaldunek euskara sortu zuten elkar ulertzeko eta elkarri beren sentimenduak eta premiak agertzeko. Eta, ahoz aho, belanez belau, gureganaino helarazten jakin dute. Eskerrak, beraz, gure aurreko eta gaurko guraso, irakasle eta herritar guztiei antzinako eta, era berean, etorkizuneko hizkuntza horren jabe egin gaituztelako. Geure ardura da, orain, kateari eustea, hartu dugun ondare hori gure ondorengoengana hel dadin.

Hala eta guztiz, egunero bizi, garatu, birsortu eta hazten ez den hizkuntza zaharkitu, gaixotu eta hil egin ohi da. Euskarak mendeetan zehar iraun du hizkuntza gutxiagotu gisa, hitz egiten zekitenek, asko zein gutxi izan, hainbat erabilera-eremutan erabiltzeko inolako aukerarik izan ez arren, beste batzuetan, ordea, familian eta lagunartean, batez ere, guztiz nagusi zelako.

Orain gero eta gehiago dira hitz egiten dakitenak, eta erabiltzen dutenak ere bai; inoiz erabili izan ez den hainbat esparru ere irabazten ari da. Gaur egun, lehen ez bezala, guraso gutxi gertzen dira euskaraz jakin eta seme-alabei irakasten ez dietenak. Euskara, lehen kanpotik hain gaitzetsia eta bertakoek hain utzia, biziberritzen ari da, eskolari, helduen euskalduntze-alfabetatzeari eta eremu publikotik nahiz pribatutik euskalgintzan dihardutenei esker.

Hala ere, lurralde guztietan euskara ez da berdin suspertu, hedatu eta biziberritu. Ofiziala ez den Nafarroako lur barrutian gutxiago. Iparraldean, berriz, orain arte euskaldunak izan diren herrietan ere, atzerakada beldurgarria izan du urte gutxian. Baina, hodei beltzen artean beti suma daiteke, han eta hemen, hartan eta horretan, eguzki-argi izpiren bat. Ez baita berez hilkor den hizkuntzarik, ezta hilezkor denik ere.

Beraz, aldeak daude lurralde batetik bestera. Askotariko egoera horrek erakusten digu, hain zuzen, gure urratsen nondik norakoa; seguruenik, tokian tokio lehentasun-helburuak, malgutasunez eta adostasunez, ondo finkatzen asmatzeko ekarriko digu euskarak aurrera egitea, datozen urteotan.

Euskarak hitzun osoak irabazten jarraitu behar du familia bidez, eskolan euskaraz ikasiz edota helduaroan euskararen jabe eginez. Horri lotuta, azken urteotan gure herrira bizimodu berri baten bila etorritako lagunak ere euskararako irabazten asmatu behar dugu.

Lehentasunekoa da Iparraldeko eta Nafarroako hiritar guztien euskararen inguruko eskubide guztiak errespetatzea, besteak beste, seme-alabak euskaraz hezi nahi dituzten gurasoek bermatuta izan dezaten aukera hori. Azkenik, aukera berdintasuna bermatzeaz bat, premiazkoa da urratsak areagotzea eskal hiltzen hizkuntza-gaitasuna sendotzeko eta esparru guztietan euskaraz aritu ahal izateko euskarazko produktu eta zerbitzu erakargarriak eta erabilgarriak denon eskura jartzeko, eta horien kontsumoa bultzatzeko.

Izan ere, euskara komunikazio-tresna bizia da, eguneroko bizitzarako balio digun komunikazio-tresna, erabiliz hobetzen dena.

Horretarako, Euskal Herriko hizkuntza den euskarak babesa, laguntza eta lanerako giroa behar ditu legeen, agintarien eta era guztietako baliabideen aldetik. Euskara eta euskalgintza susmopean jartzeko azken boladan bizi izan ditugun zenbaiten ahaleginek aurrera begira jartzeko balio behar digute, eta ez gure aniztasuna errespetatuta lortu ditugun adostasunak apurtzeko. Euskal gizarteak erakutsi du, orain artean, euskararen alde egiteko kemena baduela. Aurrerantzean ere, hemen bizi garenon arreta, ardu-ara, atxikimendua eta elkarlana beharrezkoak ditugu. Horretan jartzeko deia zabaldu nahi die Euskararen Aholku Batzordeak herritar guztiei Euskararen Eguna den honetan.



Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Donostia-San Sebastián, 1
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel.: 945 01 81 16
e-posta: l-Sosoaga@ej-gv.es



Euskara



Gaztelania

Izen-deiturak:

.....

Helbidea:

.....

Herria:

kodea:Lurraldea:.....

Tel.:

e-posta: